

# B

BARREN

# Hegaztien laguna

David Bao

TOKIKOM



ELGOIBARKO UDALA



***Etxean, sailkatu  
zaborra gaika***

Eman izena edukiontzi  
marroia erabiltzeko:

943 741 050 edo [arreta@elgoibar.net](mailto:arreta@elgoibar.net)





# Gipuzkoako Foru Aldundiaren bisita Elgoibarrera

## Azaroaren 14an, ostegunean

Martin Garitano diputatu nagusiak bilera egingo du herritarrekin  
Musika eskolan, arratsaldeko 19:00etan

**Gonbidatuta zaude**



Gipuzkoako Foru Aldundia

Norbaitek bilerara joateko aukerarik izango ez balu, baina galderaren edo iradokizunen bat egiteko gogoan balu, aldez aurretik galdera hori egiteko aukera izango du [info@gipuzkoaherritarrekin.net](mailto:info@gipuzkoaherritarrekin.net) e-posta bidez, @Herritarrekin twitter kontuaren bidez edo udaletxean bertan

# AZAROAK 15, BARIKAKUA

## UMEENTZAKO ANIMAZIOA

## TXOKOLATADA



## 18:30ETIK AURRERA, MERKATU PLAZAN!





Andres  
Alberdi

Abizenak euskalduntzeko UEMAK beste behin abian jarri duen egitasmoak eman zidak gaurko artikulutxoan idazteko motiboa. Ea zer iruditzen zaian, Angel.

Ageriko datua duk zer ohitura zabaldua den gure artean euskal abizen-deiturak erdal grafiaz ematearena: *Echeverría, Múgica, Churruca, Echaniz, Alday, Alcorta...* Eta nire begiak ezin horietara ohitu.

Harrigarri egiten zaidak, gaur egun oraindik, bere deitura horrela idazten duen jendea ez konturatzea euskal abizena bada, euskal grafia dagokiela abizen horiei. Inoiz norbaitzuei kontraesan horren aipamena egin izan diedanean, honako argudio hau eman izan zidatek: "Gure etxean deitura hori beti horrela idatzi izan da". Horrek dena justifikatuko balu bezala.

### "Zer logikoago euskal deiturak euskal arropaz janztea baino?"

Zail egiten zaiek jabetzea, nonbait, "beti horrela izan izanak" ez diola janzki duinik ematen beren argudioari; "beti horrela" izan balitz, oraindik ere kobazuloetan geundekeela, edota esklabotza onartu beharko genukeela, edota emakumea sukaldean legokeela oraindino, edota gurdian genbiltzakeela denok, ez autoan...

Zer logikoago euskal deiturak euskal arropaz janztea baino? Garai batean, jendea eskola handirik gabea zenean, uler zitekeen hala izatea; baina gaur egun?

Hizkuntz morrontzaren mendekotasun hori ez duk, gainera, grafian barririk gertatzen, erabat zabaldua zegok euskal izen-deiturak gaztelaniaren azentu-moldez ematea ere (*Agirretxè* ez, *Aguirréche* baizik; *Arózenà* ez, *Aroéna* baizik) eta erdal ahoskeraz, noski (*Lizaso* ez, *Liθaso* baizik; *Lizar-tza* ez, *Liθarθa* baizik).

Ahaztuta gabiltzak nonbait, Angel, hizkuntzak ere kolonialistak direla, inperialistak. Urte askotako hizkuntz morrontzak morroi-portaera inkontzientea eragin ziguk, eta ezin kendu gainetik. Komeniko litzaigukek horretaz pentsatzea.



Anjel  
Ugarteburu

Gutziz konforme, Andres, hire arrazoibidearekin. Kultura indartsuen inposaketak itzal luzea jaukak.

Gaiarekin lotutako pare bat pasadizo kontatuz osatuko joat nire erantzuna, arintze aldera. Jakina dok euskal deiturek, leku izenak (baserrienak askotan) eta landareenak dituztela jatorri. Toponimoak dituk lehenak, eta fitonimoak landereen berri ematen dutenak. Pertsonen izenetatik eratorriak ere bajagozak: Mitxelena, Perurena...

### "Gutziz konforme, Andres, hirekin. Kultura indartsuen inposaketak itzal luzea jaukak"

1972an, Eibarko ikastolan irakasle nintzelarik, Milloitik joaten nintzoan goizero fin-fin eta iluntzean etxera buelta. Halako batean, Mallabi aldeko Hambre taberna baino lehentxoago, errebuelta batean, bi txapel oker bide ertzean eta gelditzeko keinua: *-La documentación, por favor!* Eskatzen zidatena eman nienean, nire bigarren deiturak emon jeutsan arreta haietako bati:

- ¡Oye! ¡Mira qué apellido lleva éste! Me-a-be-baz-te-rre-txe-a-bota joan kostata.
- *Es un topónimo* – erantzun nik, bat-batean.
- ¡Cómo dice!
- *Que es un topónimo.* Zer esan ez zekiela geratu zuan une batez eta gero...
- ¡Siga usted, siga usted! Urduri mutila. Burla egin ote nien geratu zirela esango neukek.

Bigarren pasadizoa Kanadan bizi den anaiari entzuna dok. Bastarretxea (sic) deitura zuen gernikar batek lantegitxo bat jarri zuela Vancouver-en eta, abizena laburtze aldera *Bastar factory* jarri ate gainean. Hurrengo egunetan eta hileetan ere telefono deiak noiz nahi, kontizu:

- *Hello! Are you bastard?*- adarra jotzen ari denaren doinuz.
- *Yes I am* – erantzun behar, gainera. Ez zuan plana. Bere izena jarritz konpondu joan arazoa: *Gregory's factory*. Bake santua.



I. URTEURRENA

## FRANCISCO LOBETE DE LA HORRA

"Paco"

2012ko azaroaren 7an hil zen. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, azaroak 9, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiaren. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



# Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - Faxe: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi  
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia  
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia  
PUBLIZITATEA Leire Rubio  
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz  
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue  
KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarrugarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi  
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

## Argitaratzailea:

ELGOIBARKO IZARRA 50  
KULTUR ELKARTEA

## Laguntzaileak:



ELGOIBARKO UDALAK


elgoibar  
bizitzeko



MENDAKIKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



## GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Erraustegia ez da irtenbidea

Azken hamar urte hauetan Foru Aldundiak eta Gipuzkoako hondakinen Konsortzioak errausketaren aldeko apustua egin dute hondakinen bilketa eta tratamenduarean alorrean (azkeneko urteetan izan ezik) eta uko egin diote errausketaren alternatibak eztabaidatzeari. Bitartean, Gipuzkoako jendarteak agerian utzi du hondakinen kudeaketaren norabidea aldatzeko borondatea, eredu jasangarriago bat jarraituz, gaikako hondakinen %80 bilduz 120.000 gipuzkoarrek.

Gaur da eguna erraustegia irtenbidea ez dela ozen esan dezakegula. Zergatik?

- Hondakinen errausketak merkurioa, beruna, dioxinak eta beste hainbat substantzia askatzen dituela frogatuta dago eta honek ingurumena kutsatu eta gu guztiengan gaixotasunak eragiten ditu.

- Erraustegian sortzen den energia ez da berriagarria: papera, plastikoa eta metala muga-tuak diren lehengaietatik eratorriak dira. Gai horiek erraustek hondakin gehiagoren beharra sortzen du, eta soluzio erreagoak baztertu: kontserbazioa, paketeratze gutxiago, berrerabilpena, birziklapena, konpostajea.

- Erraustegi guztiak hondakin kopuru handia deseginez energia kantitate txikia lortzeko gaitasuna dute.

Zero Zabor praktikek (birziklapenak, konpostajek) hiru edo bost aldiz energia gehiago aurreraten dutela frogatu da hondakinen errausketarekin konparatuz. Hor dituzue Usurbilgo, Heraniko eta Oiartzungo adibideak. Lanpostuak sortu dira, dirua aurreztu eta oinarriko estrategia izan da klima aldatetari aurre egiteko. Ondo egiten ari diren seinale, ezta?

A.Z. ©

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelaraz datorren eskutitzik argitaratuko.



**Kiroldegiko sarreran eskailerak bakarrik daude:** “Kiroldegirako sarrerak ez ditu irisgarritasun neurriak betetzen, eta ume aulkiarekin sartzeko zailtasun handiak izaten ditugu. Igogailu bat erabiltzeko aukera badago, baina ez da batere eroso. Iruditzen zait kiroldegiko sarrerak ematen duela aukera eskailerak eta aldapatxoak jartzeko. Nire ustez, irisgarritasuna hobetzeko lanak lehentasunezkoen artean jarri beharko lirateke”.



**Pedro Muguruzako parkean zakarrontzia falta da:** “Pedro Muguruzako parkea berriro dute, baina ez dute zakarrontzirik jarri. Kubo moduko apaingarri batzuk daude parkean, eta baita jarlekuak ere, baina eskertuko genuke zakarrontziren bat jartzea”.



**Basurdeak harrapatzeko ehizaldi egiten direnean jakinarazi egin behar da:** “Joan zen domekan paseatzera irten ginen Mendaron, eta bat-batean gizon talde bat ikusi genuen, eskopetekin. Basurdeak harrapatzen ari ziren. Ingurune hartan jende asko zebilen pasiatzen, eta tartean, umeak ere bazebiltzan. Ez genuen inon ikusi ehizaldi horren berri ematen zuen kartelik, eta hurrengorako eskertuko genuke abisatzea. Zauritutako basurdeak oso arriskutsuak dira, eta ezbeharren bat gertatu daiteke”.

**Haritz zurtoin bat lapurtu dute:** “Haritz zurtoin bat lapurtu digute, oso ederra. Ez dago eskubiderik. Ostu duenak, mesedez, itzuli dezala”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:  
[barren@elgoibarakoizarra.com](mailto:barren@elgoibarakoizarra.com) 943 744 112

GABONEI  
AURREA HARTU!

7 Kg.



399€

SIEMENS garbigailua  
WM12E467EE  
1200 Rev - A+++

32"



249€

32" LED Tebista  
USB  
HDMI



IGORLE TERMIKOAK  
109,90 €-tik aurrera

MILAR

BIRE

Ubitarte 11  
943 741 487  
[bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

## Zerga eta tasa gehienei bere horretan eustea erabaki du Elgoibarko Udalak, EAJ, PSE-EE eta PPren botoekin

EHBilduk hainbat proposamen aurkeztu zituen, baina atzera bota zizkieten

Urtarrilaren 4ko Udal Batzarrean onartutako aurrekontuetan, Udalaren diru-sarreraren %43a Udalak berak zuzenean biltzen dituen zergen eta tasen bitartez lortuko zutela adostu zuten [bost zerga eta 30etik gora tasa dira], eta 2014rako, zerga eta tasa horietako gehienak daudenetan mantentzea erabaki zuten joan zen eguenean, Espainiako iraileko KPI indizeak “hazkunde apala” izan duela irizita [%0,3 igo da KPIa]. EAJ, PSE-EE eta PPren botoekin egin zuen aurrera. EHBilduk hainbat proposamen aurkeztu zituen [[www.elgoibar.ehbildu.net](http://www.elgoibar.ehbildu.net)], baina atzera bota zizkieten, eta koalizioek ezetza eman zuten bozketan. Zergak eta tasak izoztea erabakitzen ari zirela, Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa “osasuntsua” dela gogorarazi zuen EAJk, presio fiskalaren azpitik egon arren, ordenantzak igotzeko margen zabala zutela-eta.

### Salbuespenak

Orokorrean ordenantza fiskalak izoztu bazituzten ere, albuespen batzuk izan ziren. Ondasun higiezinaren gaineko zergan, esaterako, lurzoru industrialean kokatutako ondasunengan aplikatzen den tipoa %8ko igoera aplikatzea onartu zuten, era horretan azkeneko bi urteotan egin dutena jarraituz. Gainerako udalekin parekatze aldera proposatu zuen igoera hori EAJk. Horren harira, EHBilduk gogorarazi zuen Elgoibarko lurzoru industrial eta tertziarioen jabeek Udalarari ordaintzen diotena beste herrietan baino heren bat txikiagoa dela, eta haiekin pa-

rekatzeko, Elgoibarren %48 igo beharko litzatekeela tasa hori. Horregatik, %8koaren ordean %20ko igoera proposatu zuen EHBilduk.

Ibilgailuen gaineko zergari dagokionez, ibilgailu historikoen edo gutxienez 25 urteko ibilgailuei ezartzen zitzaizkien hobaria kendu egin du Udalak. Erabaki horrentzako emendakina ere aurkeztu zuen EHBilduk. Koalizioak dio gehiago duenak gehiago ordaindu behar duela, eta horren arabera taula bat aurkeztu zuen. Gauza bera dio bigarren etxebizitza dutenek ordaindu beharrekoaz ere. EHBilduk dio bizileku duina izatea eskubidea den neurri berean, etxebizitza hutsak mantentzea eskubide horren kontra doala.

Zaborrei dagokionean, Udalak jakinarazi du Debarrenako Mankomunitateak Udalarari fakturatuko dion kostea adinako igoera (%0,8koa). Hori bai, bosgarren kontenedorerako izena emandakoei ez diete igoera hori ezarriko. EHBilduk uste du, hala ere, Elgoibarko Udalak hobetsitako zaborren bilketa-sistemak ez duela balio bereizteko zeinek ondo eta zeinek txarto egiten duen, bosgarren kontenedorerako izena emanda egoteak ez duelako esan nahi herritar horrek ondo bereizten duenik zaborra. Hori dela eta, hondakinak kudeatzeko plan orokor bat aldarrikatu du, epe zehatz batean betebeharreko helburuak zehaztu eta horretarako bitartekoak jarriko dituen.

Igoerarik handiena kirol tasei aplikatuko diete, “Udal Kirol Patroinatua beharrezko ikusi duelako aurrekontuak orekatzeko”. Abonuetan %5eko igoera ezarriko dute, eta ekintza eta zerbitzuetan %2,9koa.

### Lanbidek finantzatutako ikastaroak eskainiko ditu IMHk langabetuentzat

Langabetuentzako ikastaroak antolatu ditu IMHk azarorako. Lanbidek, Euskal Enplegu Zerbitzuak, oso-osoan finantzatuko ditu ikastaroak, eta, gainera, enpresetan praktikak egiteko aukera izango dute izena ematen dutenek. Lau ikastaro izango dira guztira: txirbil harroketarako mekanizazioa, abiarazte teknikariak sortzeko, fabrikazio eragiketen eta ekipo industrialen mantentze-lanen inguruko eta muntaketa mekanikoko. Interesatuak Lanbidek Elgoibarren daukan bulegoan eman behar dute izena. IMHren webgunean ([www.imh.es](http://www.imh.es)) edota 943 744 132 telefono zenbakira deituta eskura daiteke informazio gehiago.

### Elgoibar Ekinean izeneko tailerra, negozioa zabaltzeko nahi dutenentzat

Elgoibar Ekinean izeneko tailerra antolatu dute Elgoibarko Udalak eta Debegesa garapen agentziak, elkarlanean. Enpresa edo negozio propioa abian jarri nahi dutenei begira antolatu dute tailerra, eta azaroaren 11n hasiko da. Sei izango dira guztira, debalde, eta plazak mugatuak izango dira. Izena emateko [ekintzaile@debegesa.com](mailto:ekintzaile@debegesa.com) helbidera idatzi behar da edota 943 820 110 telefono zenbakira deitu. Tailerrean, ekintzailetasuna bultzatzeko beharrezko jardungo dute, eta Elgoibarren ekintzailetasunak izan duen eta duen eragina aztertuko dute. Era berean, ekintzaile izateko oztopoak amaitzeko eta lankidetzeta eta elkarlanerako espiritua lantzeko argigariak emango dituzte, eta negozio idea potentzialak identifikatzen eta bideragarritasun planak garatzen lagunduko diete. Azaroaren 11, 13, 15, 18, 20 eta 22an izango dira eskolak Elgoibarko Kultur Etxean, 9:30etik 13:30era.

## Bisita **Martin Garitano, Elgoibarren**

“Elgoibarko errealitatea ezagutzeko” eta herritarrekin zuzeneko harremana izateko Elgoibarrera etorriko da Martin Garitano Gipuzkoako ahalduen nagusia azaroaren 14an. Inazio Bereziartua musika eskolan izango da bilera, 19:00etatik aurrera. Bilerara joan ezin duten herritarrek emailez ([info@gipuzkoaherritarrekin.net](mailto:info@gipuzkoaherritarrekin.net)) edo @Herritarrekin twitter kontuaren bidez egin ditzakete galderak, edota udaletxean bertan utzi euren galdera.



## Datua **868 langabe**

746 lagun daude lanik gabe Elgoibarren, eta 122 lagun Mendaron. 2013ko bigarren hiruhileko tarteari dagozkion datuak dira. Debararrenari dagokionean, %15,88koa da langabezia-tasa, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko batezbestekoa baino puntu bat altuagoa. Elgoibarren, 2012ko bigarren hiruhilekotik hona, %2,7 egin du gora, %11,63tik %13,90ra. Mendaroko langabezia-tasa zertxobait apalagoa da: %12,70. Informazio gehiagorako: [www.lanbide.net](http://www.lanbide.net).

## Irudia **Odol emaileen bilkura**



Urtero legez, odol emaileak omentzeko ekitaldia egin zuten joan zen urriaren 27an, Eibarren. 25, 40 eta 50 aldiz odola emandakoak nabarmendu zituzten ekitaldian. Honako hauek dira intsigniak eta dominak jaso zituzten elgoibartarrak. Hogeita bost aldiz odola emandakoak: Pilar Arriola, Zigor Bengoetxea, Aitor Bergua, Igor Castañares, Araiz Etxaniz, Jon Elizburu, Jesus Mari Espilla, Ibai Etxabe, Marta Garcia, Begoña Gurutxaga, Pilar Ibaguren, Nerea Juaristi, Enkarni Migales, Oscar Perez, Marciano Rodriguez, Rosario San Martin eta Azucena Sanz Mehabe. 40 aldiz odola emandakoak: Maria Teresa Casado, Rosa Maria Leiaristi, eta Manuela Mochales. 50 aldiz odola emandakoak: Jesus Mari Azpiazu, Jose Antonio Garcia de la Serna, Eduardo Gomez, Jose Maria Murcia eta Pedro Zapata. Elgoibarko Odol Emaileen Elkarteak eskerrak eman zizkien guztiei izandako prestutasunagatik, eta gogorazi zuen hilaren 15ean odol ateratzek egingo dituztela Elgoibarren, 18:30etik aurrera.

## **Autobus zerbitzua hobetzeko bilera, Elgoibarren**

Gipuzkoako garraio publikoko sistema hobetu nahi du Foru Aldundiak, eta horretarako, partaide-tza prozesua du. Diputaziotik esan dute orain arte teknikarien eta politikoen irizpideen arabera ezarri izan direla autobus-zerbitzuetako kontratazio-irizpideak, eta datorren urtean horietako batzuk berri behar direnez, herritarren beharrak entzun nahi dituztela. Hori dela eta, bilera antolatu dute Elgoibarren, hilaren 11rako (Kultur Etxean, 19:00etan). Eskualde barruko zerbitzuez, eskualde arteko loturaz, autobusen maiztasunaz, ibilbideaz, ordutegiaz... hitz egin ahal izango da bertan. Bilerara joan ezin duenak ere badu, baina, ekarpenak egiteko aukera, [www.garraioahobetzen.net](http://www.garraioahobetzen.net) sartu eta galdetegia beteta (hilare 15a da azken eguna). Galdetegia betetzen dutenen artean, Mugi/Lurraldebus txartelak kargatzeko hoge euroko bonoak zozketatuko dituzte.

## **Eguraldi iragarpenengatik atzeratu egin dute Mendaron Arnora irteera**


Arno ingurua ezagutzeko ibilaldia antolatua zuen biharko Mendaroko ludotekak, baina arduradunek jakinarazi dute ibilaldia atzeratu egingo dutela, biharko eguraldi txarra iragarri dutelako. Ez dute zehaztu noiz izango den.

## **Asiako liztorren erlauntz bat bota zuten Mendaron**

Asiako liztorren erlauntz bat bota zuten Mendaron ertzainek joan zen eguenean. Zubi azpiko arbola batean zegoen erlauntza, Kurutzegain poligonotik bertan. Duela bi aste eman zuen abisua herritar batek, eta Diputazioko teknikariek jakinarazi zien Udalak. Erlauntza zegoen lekura iristerik ez zutela ikusita, tiroka bota zuten ertzainek.

# KARMELO URDANGARIN

EKONOMILARIA



**“Krisitik irtengo bagara, industria sektorea indartzetik izango da”**

Gizarte balioen arloan nabarmendu den pertsona edo erakundearen lana aitortu eta saritzen du Debegesak urtero, eta aurten, Karmelo Urdangarinek (Deba, 1932) jaso du Gure Balioak saria, enpresa, kultura eta gizarte esparruan erakutsitako lankidetzarako gaitasunagatik. Urdangarinek peritu eta merkataritza-irakasletza ikasketak egin zituen, eta ekonomia alorrean espezializatu zen. Orbea enpresan hasi zen lanean, eta 1971n, enpresa desagertzeaz zela, kooperatiba sortzeko egin zuen lan Urdangarinek. Orbeako zuzendari izendatu zuten gero, eta Caja Laboral Popularrereko enpresa atalera pasatu zen arte eutsi zion kargu horri. 1962an Acme-deva enpresa eratu zuen beste hainbatekin batera, eta 1969an, Danobat, Eguzki eta Acme-deva fusionatu ziren, Danobat Coop. eratuz. Urdangarin enpresa horretako langile eta batzar nagusiko kide izan zen, 1977an erretiroa hartu zuen arte.



**Enpresa, kultura eta gizarte esparruan era-  
kutsitako lankidetzarako gaitasunagatik  
eman dizute Gure Balioak saria. Zer suposa-  
tu du sari horrek zuretzat?**

Sari-banaketa baino lau egun lehenago jaki-  
narazi zidaten saria emango zidatela, eta  
sorpresaz hartu nuen. Ez nekien ezer, eta  
gainera isilean gordetzeko esan zidaten. Oso  
ondo hartu dut, polita izan da. Sari banaketa  
Deban egin zuten gainera, Agirre jauregiko  
ispiluen gelan, eta ekitaldi dotorea izan zen.  
Jesus Bilbao iazko saridunak eman zidan sa-  
ria, eta pozik hartu nuen.

**Beste gauza askoren artean, ekonomilaria  
zara. Nola ikusten duzu gaur egungo gizarte-  
aren egoera ekonomikoa?**

Ekonomia liberala edo kapitalistak beti fun-  
tzionatu izan du berdin. Garai batzuetan  
goian ibiltzen da, eta beste batzuetan behe-  
ra etortzen da. Horri buruz milaka liburu dau-  
de idatzita, biblioteca osoak! Hau da, ekono-  
mia ziklikoa da. Hamar urtez hazten egon gi-  
nen, hazi eta hazi egin ginen, hein handi ba-  
tean etxebizitza asko egin zirelako, baina  
hazkunde horrek gehiegi irautu zuen, eta  
orain beharaldia etorri da. Badiardi ekono-  
miaren atzeraldia amaitu dela, eta hasi gare-  
la berriz ere hazten eta aberastasuna sor-  
tzen. Barne Produktu Gordinak (BPG) era-  
kusten du ekonomiaren egoera, eta indize  
hori mantendu edo jaisten denean esaten da  
ekonomiak atzera egin duela. Azken datuen  
arabera BPGa hazi egin da, eta badiardi ten-  
dentzia horri eutsiko diogula. Beste kontu  
bat izango da ia enplegua sortzeko beste  
hazten den ekonomia. Hori ez da erraza  
izango, eta beste pare bat urtean berdin sa-  
mar jarraituko dugula uste dut.

**Hain zuzen ere, gizartearen kezka nagusie-  
netarikoa langabezia da gaur egun. Nola  
emango diogu buelta egoera horri?**

Ekonomia hazten bada, sortuko da enple-  
gua. Enplegatzaileak, gainera, askoz erraza-  
go dauka gaur egun jendea kontratatze-  
ko. Gobernuak onartu duen lan-erreformari es-  
ker kontratuak errazago eteten dira, askoz  
merkeagoa da langilea kaleratzea, kalteor-  
dainak gero eta txikiagoak dira... Horrek  
erraztu egingo du jendea kontratatzea eta  
enplegua sortuko da, baina oraindik urtebe-  
te edo urte pare bat itxaron beharko dugula  
iruditzen zait.

**Enplegua sortuko da, bai, baina zein baldin-  
tzatan?**

Orain arteko baldintzetan, ez, jakina. Langile-  
ak orain arte eskuratutako baldintzak joan di-  
ra pikutara, eta beste lan baldintza batzutan  
lan egin beharko da aurrerantz. Gobernu  
honen ideologia murrizketetan oinarrituta da-  
go, eta hainbeste urtean lortu dena egun ba-  
tetik bestera murriztu du. Hurrengo hautes-  
kundeetan beste alderdiren batek irabaziko  
balu, murrizketa hauek berriz ere lehengora  
eramango litzuke, akaso, baina hori ere ikusi  
egin beharko da.

**“Ez dut uste Fagorren  
gertatu denak  
kooperatibismoaren  
krisiarekin  
zerikusirik duenik”**

**Orbean hasi zinen lanean, eta enpresa desa-  
gertzeaz zegoela, kooperatiba sortzeko ekin-  
tzailaketako bat izan zinen. Zergatik koopera-  
tiba?**

Gaur bertan ere, egoera hura bera errepika-  
tuko balitz, gauza bera egin beharko litzate-  
ke. Orbeak sozietate anonimo bezala ez zeu-  
kan etorkizunik, eta beste irtenbide bat aur-  
kitu beharra zegoen. Langileak langabeziara  
joateko ariskuan egon ziren, baldintza oso  
txarretan, gainera. Horren aurrean beste en-  
presa eredu baten aldeko apustua egin ge-  
nuen, kasu hartan, kooperatibaren alde. Ni  
aukeratu ninduten zuzendari nagusi bezala,  
eta ahal nuen guztia egin nuen enpresak au-  
rrera egin zezan.

**Beste enpresa ereduarekin alderatuta, zein  
abantaila dauka kooperatibak?**

Kooperatibak pertsonak hartzen ditu kon-  
tuan, eta horri esker, langileen partaidetza  
handiagoa lortzen du; langileek badute zere-  
sana kooperatiban, eta hori positiboa da lan-  
kidetzarako. Nik une honetan ere enpresa  
bat sortuko banu, seguruenik kooperatiba-  
ren alde egingo nuke. Enpresa eredu solida-  
rioagoa da, eta langileen soldatetan diferent-  
zia txikiagoak daude goian eta behean dau-  
denen artean. Sozietate anonimoetan dife-  
rentziak handiagoak dira.

**Egunotan Fagor Etxetresnen itxiera izan da**

**komunikabideetako gai nagusienetarikoa.  
Kooperatiba ereduaren aintzindaria izan dena  
erori da, eta kooperatibismoa zalantzan jarri  
dute askok. Zer gertatu da?**

Fagorren gauzak ez dituzte ondo egin, bai  
produktu aldetik eta baita merkatu aldetik ere  
bai. Edozein enpresak merkatuaren beharretara  
moldatu behar du, dela kooperatiba edo  
dela sozietate anonimoa. Enpresa batek ez  
badie merkatuaren beharrei erantzuten, itxi  
egin behar izaten du, eta horixe gertatu zaio  
Fagorri; ez du jakin merkatuaren beharretara  
moldatzen. Ez dituzte hartu beharreko neu-  
rriak hartu, eta agintariak bazekiten hau eto-  
rriko zela. Urteak zeramatzen galerekin, eta  
hau ez da sorpresa izan. Hori bai, honek se-  
kulako eragina izango du Euskal Herriko  
ekonomian, eta bereziki, Gipuzkoan. Fagor  
ixteak haien zuten beste en-  
presa askorengan izango du eragina, eta ho-  
rrek ondorio latzak ekarriko ditu. Drama ego-  
era larriak biziko ditugu, eta egoera horri  
buelta ematea ez da erraza izango.

**Kooperatiba bat itxi da, beraz, baina koope-  
ratibismoa krisian al dago?**

Ez dut uste Fagorren gertatu denak koope-  
ratibismoaren krisiarekin zerikusirik duenik.  
Nire ustez kooperatibismoa ez dago zalant-  
zan, nahiz eta medioetan bestelakoa irakurri  
dugun egunotan. Garai zail hauetan beste  
kooperatiba askok dirua irabazten dute, Da-  
nobat Taldeak edo Oronak, esate baterako.  
Arrasaten bertan ere, Mondragon taldearen  
barruko beste kooperatiba askok irabaziak  
dituzte, beraz, ez da enpresa ereduaren ara-  
zoa, baizik eta neurriak garaiz hartu ez izana-  
rena. Hori gertatzen denean, kooperatiban  
edo bestelako edozein enpresatan itxiera  
etortzen da, ez dago beste itearrerarik. Merka-  
tuan lehiakorra izaten ez du jakin Fagorrek,  
eta hori gertatu da.

**Euskadiko Kutxan ere lan egindakoa zara.  
Krisi hau banketxeek sortu dutela diote as-  
kok. Zer egin dezakete kutxa eta banketxe-  
ek krisialdiari irtenbidea emateko?**

Banketxeek diru asko eman zuten orain dela  
urte batzuek, bereziki, etxebizitzak egiten zi-  
tuzten enpresei, eta baita, etxe horiek erosi  
nahi zituztenei ere. Diru hori eman ahal izate-  
ko, zor asko hartu zuten atzerrian, eta intere-  
sekin jokatu, dirua irabazten zuten. Baina  
eraikuntza krisia etorri zenean, banketxeei  
ordaindu ezinda geratu ziren eraikuntza en-  
presa asko eta asko. Baina bankuek atze-

rrian hartutako zor hori ordaindu egin behar zuten, eta horregatik hasi ziren mailegu guxtiago ematen. Banketxeetan zegoen dirua eta sartzen zen diru guztia atzerriko zorra ordaintzeko erabili behar zuten, eta horregatik itxi dute maileguen iturria. Banketxeek dirua ematea garrantzitsua da, baina ikusi egin behar da baita ere zein baldintzatan ematen duten diru hori. Mailegua hartzerako unean edozein baldintza onartzen dira askotan, eta gero horri erantzun ezinda ibiltzen dira asko. Etxe kaleratzeak ere hortik etorri dira, maileguen baldintza gogorregatik. Une honetan banketxeek etxe asko dituzte, eta horiek gaienetik kendu orduko pasatuko da denbora.

**Hezkuntzak garrantzia handia dauka gizarte baten garapenean. Jantzia ikusten al duzu gure gizartea egoera hau gainditzeko?**

Hezkuntza oso garrantzitsua da, eta hori ere, modu berezian zaintzen da kooperatiban. Irabazien %30 langileak formatzeko erabiltzen da, eta horrez gain, kulturarako ere dirua ematen dute. Jendea formatzea oso garrantzitsua da.

**Ikusten al da argirik, tunel beltz honen amaieran?**

Euskal Herrian enplegu gehiena zerbitzuen alorrean dago, %62 gutxi gorabehera. Industrian, aldiz, enpleguaren %26 inguru dago, baina aberastasunik gehiena industriaren sektoreak sortzen du. Horregatik, industriaren sektorearen bilakaeraren araberakoa izango da krisiaren amaiera. Aurtan, esate baterako, turismoaren sektorea indartsu egon da, jende asko etorri delako kanpotik oporretan Euskal Herrira, baina hemen industriaren sektorea zaindu behar dugu, bereziki. Hori da egiten dakiguna, eta bereziki Debabarrenean eta Elgoibarren. Euskal Herrian industria ondo badabil, zerbitzuen sektorea ere indartu egingo da, baina oinarritzako industria sektorea sustatzea da. Herriarrek kontsumituko dute gero janaria, erropak edo dena delakoa, baina dirua industriatik etorriko da. Nire iritziz, krisitik irtengo bagara, industria sektorea indartzetik izango da.

**81 urte dituzu, eta egoera larri asko bizi izango zenituen, baina egungoa bezalako krisialdirik ezagutu al duzu sekula?**

Bai, jakina. Kontua da egoera zailak ahaztu egiten zaizkigula. Horretarako programatuta daukagu burua hein batean,



*Jesus Bilbao iazko saridunak eman zion saria Karmelo Urdangarini.*

**“Baikorrak izan behar gara. Egoera hau pasatuko da, eta etorriko da loraldia”**

gauza txarrak ahazteko, eta eskerrak, bestela aurrera egitea zailagoa izango litzateke. Baina hemen krisi egoera latzak bizi izan ditugu. Orain dela 30 bat urte mobilizazio handiak izan ziren hainbat enpresa itxi zirelako, eta 1959ko krisia ere latza izan zen. Ekonomiak horrela funtzionatzen du.

**Krisialdiaren aurretik gure baliabideen gaietik bizi izan garela diote adituek, burbuila batean, baina burbuilak eztanda egin du. Zer uste duzu?**

Bai, izan daiteke. Gizakiak horrelakotxeak gara, ez dakigu daukagunarekin konformatzen. Denok nahi dugu bigarren etxebizitza bat, edo auto berria, eta ahal bada albokoarena baino handiagoa eta hobea. Bakoitzak erabakiko du dirua zertarako erabili nahi duen, ni ez naiz horretan sar-

tuko, baina argi eduki behar da mailegu bat eskatzeak badituela arriskuak.

**Adituen arabera, krisialditik irteten ari gara. Baikorrak izan gaitzke?**

Bai, baikorrak izan behar gara. Egoera hau pasatuko da eta etorriko da loraldia. Gertatzen da, a gizarteko baloreak asko aldatu direla. Pentsa daiteke hobera aldatu direla, baina nik zalantzak ditut. Gure belaunaldian borroka gehiago egiten genuen, eta arazoan aurrean berehala elkartzen ginen taldean, egoera horri aurre egiteko. Orain indibidualistagoak gara, eta bakoitzak bereari begiratzen dio. Ni orain trenez asko ibiltzen naiz, esate baterako. Gazteak girela tren zerbitzuarekin arazoak zeudenean, berehala batzen ginen zerbeit egiteko. Gaurko gazteak ikusten ditut bakoitza bere telefonoarekin jolasean, eta hiru metrora daukan lagunarekin telefonoz hitz egiten. Harritu egiten naiz egoera eta balore aldaketa horiekin, baina hori da dagoena.

**Erretiroa hartu zenuen, baina oso aktibo jarraitzen duzu. Zertan diharduzu orain?**

Honezkero 27 bat liburu argitaratu ditut, eta bost mila artikulua inguru idatzi ditut medioetan. Orain aintzinako lanbideei buruz ikertzen ari naiz, Koldo Lizarralde eta Julen Zabaletaren laguntzarekin, besteak beste. 277 ofizio aztertu ditugu dagoeneko, eta gauza oso interesgarriak jaso ditugu.

## Erretratu zaharra



### 1965

1965. urteko argazki zahar hau Pilar Ikastetxean aterata dago. Egunotan hasi dituzte Pilar Ikastetxea botatzeko lanak, eta hilbate inguruan ez da ikastetxearen arrastorik geratuko. Hala ere, mota honetako argazkiek oroituko digute Pilar Ikastetxea zer izan zen. Gogora ditzagun mutiko hauek izenak.

**Goian:** Patxi Zabala, Exposito, Patxi Gonzalez, Ipiña, Arozena, Jose Maria De La Cruz, Luis Azkue, Eduardo Osoro, Mikel Sagasta. **Bigarren ilaran:** Arregi, Julen Zubiaurre (†), Jose Maria Salaberria, Luis Mari Agullo, Jose Antonio Segundo, ezezaguna, Jose Vila, Jose Ramon Muguruza, Jose Antonio Hernando. **Hirugarren ilaran:** Urkiri, Jose Gonzalez, Jesus Mari Ladron, Patxi Ezkurra, Jesus Mari Gabilondo, Jesus Mari Gonzalez, ezezaguna, Del Rio, Trueba (†). **Laugarren ilaran:** Patxi Juaristi, Kamilo Konde, Emilio Martinez, Ansola, Rafael De La Cruz. **Makurtuta:** Justo Iglesias (†), Miguez, Ricardo Garcia, Javi Ansola, Roberto Andonegi, ezezaguna, Agustin Garagartza, Fernando Azpiazu, Simon Angel Osoro.

### I. URTEURRENA

## SABIN BERISTAIN JUARISTI



2012ko azaroaren 12an hil zen. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, eguaztenean, azaroak 13, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian. Joango zaretanoi eskerrak alde zurretik.



## DAVID BAO

Hegazti hazlea

Sukaldaria da ogibidez David Bao (Mendaro, 1984). Gazte hasi zen plater artean lanean, eta izen handiko sukaldariek lan egin du, baina gaur, industria-mekanikako goi mailako zikloa egiten dihardu Eibarren. Biologia da berea, baina. Hegaztiak liluratzen dute, hegazti harrapariak bereziki. Hego-belatz bat dauka etxean, eta ehizarako hezten ari da. Hegaztiok zaindu eta jendearen kontzientzietan eragin nahi du.

Ainara Argoitia



### “Bihar hegazti hauek hegan ikusi nahi baditugu, gaurtik hasi behar gara lanean”

**Nondik datorkizu afizio hau?**

Txoriekin ehizatzeari buruzko dokumental bat ikusi nuen behin Interneten, eta gustatu egin zitzaidan.

**Txori bat baino gehiago izan dituzu etxean. Zein espezieakoa izan zen hartu zenuen lehenengoa, eta zergatik hori?**

Belatz gorria (*Falco tinnunculus*) hartu nuen, ikasteko. Ehizarako erabiltzen den txikienetakoa da, eta metabolismo azeleratua duenez, bera heztean egiten ditugun hanka-sartzeak azkar asko zuzentzeko aukera ematen du.

Orain daukadan honi, adibidez, behar baino gehiago ematen badiot, astebete inguru itxaron behar dut gero bere berezko pisura itzuli dadin. Horrek zer esan nahi du? Astebetez jaramonik ere ez didala egingo. Txori honek 600 gramo pisatzen ditu orain, baina golpera 700 gramo hartzen badiu, ia jan ere ez du egingo, behar baino grasa gehiago izango duelako, eta ondorioz, baita behar duena baino energia gehiago ere. Hasteko, txori errazago bat behar nuen. Errezen artean hezteko zailena da belatz gorria.

**Hezteko hartu duzun bigarren txoria duzu hau. Zein espezieakoa da, eta zeintzuk ezaugarri ditu?**

Hego-belatz bat da (*Falco biarmicus*). Honekin moldatzen naizenean, beste zailago bat hartu nahi nuke: Belatz handia (*Falco peregrinus*), eta hurrengo, behe hegaldietakoekin hasten naizenean, Harris arrano bat (*Parabuteo unicinctus*) ekarriko nuke gustura, goi hegaldietako beste bat. Hego-belatza Afrika ipar-mendebaldeko eta Europa hego-mendebaldeko hegazti harraparia da. 600 gramo

inguruko pisua du, eta goitik beheranzkoan, 220 bat kilometro orduko abiadura har dezake. Abiadura horretan kaioak, ahateak, eta oro har bere inguruan hegan egiten duen edozein txori ehiza dezake. Buztan luzeko hegaztia da, eta horrek maniobragarritasun handia ematen dio. Belatz handiak, aldiz, ezingo luke galeper bat ehizatu, 350 kilometro orduko abiaduran jaisten delako, eta buztan motzagoa duenez, ez duelako bestek besteko maniobragarritasunik. Horregatik, ikuskizunetarako-eta orain daukadan hau egokiagoa da.

**Jabetuko zinen kalean denak izan ditugula begira, ezta? Nola daramazu? Afizioa da zurea, baina zer egitea daukazu buruan?**

Hemen, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian ez da oso ohikoa, baina Nafarroan bertan eta zer esanik ez Burgos inguruan, erraz topa genitzake halako txoriak, Erdi Aroko azoketan-eta. Erdi Aroan asko erabiltzen ziren txori hauek hemen. Nobleziaren kirola zen hau, beste inork ezin zuelako belatz bat mantendu. Afiziotzat daukat nik, baina gustatuko litzaidake egunen batean ikuskizunen bat eskaintzeko gai izatea, kontzientziazioa delako guzti honetatik gehien erakartzen nauen ideia. Pena da, hemen bertan, Mendaron, mendira irten eta espezie hauetako txoririk ez ikustea. Harrapakin asko daude, baina harraparik apenas. Hontz banaka batzuk badaude, baina gutxi gehiago, eta Euskadin, daukagun bioaniztasuna izanda, animalia hauek zaindu egin beharko genituzke, gure ekosistema nola dagoen ikusteko adierazgarri ere badirelako. Izan ere, harrapariak falta badira, harrapakinak falta direlako izan daiteke edo gerta daiteke harraparik ezean harrapakinak asko ugaltzea eta izurriak sortzea. Baserritarrentzat ere lagungarri dira txori hauek ereindakoa edo landatutakoa zaintzeko. Espezieak zaintzeko ahalegin bat egin beharko genuke.

**Zer nolako beharrak ditu halako hegazti batek?**

Asko, egia esan, baina egin beharreko guztia oso mekanikoa da. Oso sentikorak dira. Honen, esaterako, goizero lau bat ordu ematen ditu hegoen atzealdean daukan glandulak jariatzen dion olioarekin hegoak koipeztatzen. Eguzki ordu asko behar izaten dituzte hauek, lumak-eta zaintzeko. Askok oinetakoak hi-

permeabilizatzeko erabiltzen dituzten espraien antzekoa erosi beharko dut orain nik, txoriaren lumak babesteko. Interneti eta teknologiari esker eskura daukagu orain ezagutza guzti hori. Irrati sistema bat ere erosi nahiko nuke. Izan ere, txori hau galtzen zait orain hemen, eta hamar minutuan Bilbon agertu daiteke. Kolonbikultura hitza entzun duzu inoiz? Usoak ehizatzeko kulturari esaten zaio. Txip batzuk erabiltzen dituzte, eta orain badaude sakelako telefonoko GPSaren bidez txoria uneoro non dagoen jakiteko balio dutenak ere. Garestiak dira, baina, eta apur batean zain egon beharko naiz. Horri esker, behin hegaztia nere deietara egiten denean, alegia apeura [amutat erabiltzen duten tramakulua] ohitzen denean, aukera izango nuke ehiza denboraldi oso batez libre lagatzeko, apua erakutsi bezain laster berehala itzuliko litzatekeelako niregana. Aztoreekin asko egiten dute hori Nafarroan.

**“Ezin dugu pozoia erabili eta uso guztiak hil, gogaikarri zaizkigulako bakarrik”**

**Zenbat ordu eskaintzen dizkiozu egunean?**

Bost bat ordu. Goizean, pisatu egin behar da, bezperan eman diozun jatekoa nola liseritu duen ikusi eta kalkuluak egiteko. Kalera ateratzen dut gero, eta bere portaera aztertu. Noiz esango zenuke erasokor dagoela txori hau? Hegoak zabal-zabalik dituenen, beharbada? Bada, ez. Orduan, izututa dago, eta hegoak zabaltzen ditu, urruntzeko eskatuz. Erasokor dagoenean aingeru baten itxura hartzen du. Hegoak itxi eta burua makurtzen du. Normal dagoela irudituko zaizu, baina gerturatzeko bazara atzaparka hartuko zaitu. Lau segundo baino gehiagor adi-adi begiratzen badiozu, eraso moduan ulertuko du, halaxe egoten direlako eurek harrapakin zelatan. Hori dena ikasi behar da.

**Bi-edo hiru hilabete iraungo ditu ehiza denboraldiak. Basa animalia izanda, zaila egiten da sinistea horrenbeste denboraren ostean itzuliko dela.**

Itzultzen dira, bai, eta baita bi urtean libre lagaz gero ere. Plazera zerk ematen dien ondo grabatzen dute buruan eta plazera ehiza azkarrarekin edo jateko ugaria dagoen lekuekin lotzen dute sarri. Ikusmen eta memoria bikainak dituzte. Horregatik, nik orain txori hau beldurtuko banu, zaila izango nuke berriro bere konfiantza berreskuratzea. Kontu handiz ibili behar da. Oso garrantzitsua da zer egiten duen, nola egiten duen, eta zeri erantzuteko egiten duen egunerokoan apuntatzea.

**Eta zuk ezin duzunean? Nola moldatzen zara?**

Amaren kargu lagatzen dut. Ona da jende artera ohitzea.

**Zein motatako baimenak behar dira halako txori bat etxean izateko?**

Ehizatzeko erabili behar ez baduzu, CITES baimenarekin nahikoa da [Galzorian dauden espezieen, animalien zein landareen, merkataritza arautzeko eta kontrolatzeko nazioarteko hitzarmena]. Erastun bat jartzen diete, adierazteko itxian hazitakoa dela. Babestutako espezieak dira, eta librean hazitako bat hartuz gero, 30.000 eurora arteko isuna jarri diezazukete. Kontuan izan behar duzu espezie hau ez dela hemengoa eta ihes egingo balu, izugarriko triskantza eragingo lukeela, ez lukeelako hemen aurkaririk izango. Jateko gabe utziko litzuzke hemen bertako espezie asko, eta uxatu ere bai bere ingurutik. Honen aurretik izan nuen txoriarekin gertatu zitzaizdan behin. Kalera irten eta Azpilgoeta gaineko alde horretatik bi arrano etorri zitzaizkidan ingurune hau euren dela gogorarazteko.

**Etxean non izaten duzu belatza?**

Logelan. Hauek ez dute toki askorik behar, hanka baten gainean lo egiten dutelako eta esna daudela ere, geldi egoten direlako, bi hanken gainean.

**Non eta nola entrenatzen duzu?**

Gorlizen lur sailtxo bat utzi didate inguru hartan entrenatzeko, baina ez didate etxolarik eta ezer egiteko aukerarik ematen. Mendaron entrenatzen dut beraz. Lur sail handixea go baten bila ari naiz, etorkizunean haztegitxo bat jarri eta ahal izanez gero, umeekin-

eta lan egiteko. Aukera dago Diputazioari ehizarako baimena eskatzeko ere. Onartzen badizute, hegaldatzeetarako leku bat zehazten dizute, eta egiteko bat jarri: halako lekutan uso larregi daude eta batzuk ehizatu behar dituzu, edota aireportu bueltan ibiltzen diren txoriak uxatu behar dituzu. Momentuz ikasten ari naiz, baina. Asko jakin behar da txorien psikologiaz. Txakurrak gustatzen zaizkizulako ezin duzu lehenengotik alemaniar artzai-txakur bat hartu. Jende asko ikusten da kalean txakurrari tiraka, gobernartu ezinda. Hori onartezina da. Bada, hemen berdin.

**Harris arranoa edo belatz handia dituzu begiz jota orain. Ez duzu bakararekin gelditzeko asmorik hortaz.**

Ez. Ez dakit noraino iritsiko naizen, baina nahi nuke jendearen kontzientzietan eragin. Joan zen astean bertan sekulako eztabaida izan nuen Mendaroko ume batzuekin. Santa Ana bidean dagoen enpresako su-itxalgailuak hartu eta Santa Ana inguruan hustu zituzten. Ume-umeak ere ez ziren, gainera. Botatzen ari zirena toxikoa dela eta animalia asko hil zitzaizketela ohartarazi nien, baina oilartu zitzaizkidan eta ezer ez. Egun horretan bertan nire

txoriak sagu bat ehizatu zuen inguru hartan. Pentsa zer gerta zitekeen! Hegazti hauek oso lagungarri izan daitezke izurriak sahiesteko. Mendaron bertan, ganbara asko garbitu ditut. Usoak ugaritzen ari dira, eta jendeak pozoia botatzeko joera dauka halakoetan. Ez dira kontziente zer kalte eragin dezaketen, pozo hori animaliatik animalara pasatu daitekeelako. Aldiz, txori hauekin erraz asko saihestu daitezke izurri horiek inguruari kalterik eragin gabe. Orain, Kilimoian, igarabak ere badabilza, eta lehengo aldean gutxi izan arren, amonari eta ezkaile batzuk ere badabilza. Badakizu zer nolako aberastasuna den hori?

**Badakigu daukaguna baloratzen?**

Ez, baina zaintzeko, hor daudela ere jakin behar dugu. Arratiako bailaran sai-arre komunitate handiena daukagu, eta inork ez dauka horren berri. Hipika eskolak edonon daude, baina hegazti haztegerik ez dago adibidez. Nola baloratuko duzu zerbait, daukagula ere ez baldin badakizu? Interesa sortzen badugu, pauso bat eman dugu, eta horregatik, poztu egiten naiz kalean jendea gerturatzen zaidanean, edo umeak begira ikusten ditudanean. Biharko egunean hegazti hauek

hegan ikusi nahi baditugu, gaurtik hasi behar gara haiek errespetatzen eta babesten. Jendeak hori ikusi behar du. Nik uste dut umei erakutsiko baliegu hegazti hauek nola ehizatzen duten berehala maiteminduko liratekeela haietaz.

**Usoen kontua bolo-bolo dabil Mendaron. Udalak esku hartu beharko lukeela esaten ere entzun ditugu zenbait. Zer esango zenieke horren gainean erabaki behar dutenei?**

Pentsatzeko ondo zer nahi duten, eta ez hartzeko naturari kalte egingo dion erabakirik. Batek baino gehiagok esan dit ia zergatik ez ditudan usoak uxatzen, baina nik horretarako Udalaren baimena beharko nuke. Ezin naiz besterik gabe hasi. Baina egia da pozoia erabiltzea baino irtenbide egokiagoa badela hau. Txori hau astean hiru bat aldiz libre lagatzen badut, laster dira usoak uxatu. Hiru edo lau ehizatuko ditu, eta usoek berehala ikasiko dute herrigunea ez dela kabiak jartzeko lekurik onena. Metodo honekin behar diren txoriak bakarrik hiltzen dituzu. Ezin ditugu uso guztiak hil gogaikarri zaizkizulako. Naturaren parte dira, eta euren funtzioa betetzen dute. Ehizan hasi berriei ere gogoraraziko nieke hori: ehiza-barruti bategatik dirua ordaindu badute ere, ezin direla mendi osoaren jabe sentitu. Zergatik hil behar ditut hor bizi diren arranoak? Ehiztari horrek hilko ditu arrano horiek eta pozoia erabiltzera behartuko du gero baserritarra, arabazozok uzta jan ez diezaioten.

**Ikuskizunekin ere hasi nahiko zenuke. Zer daukazu buruan edo zer egin daiteke?**

Egin, edozer egin daiteke. Aukera handia ematen dute hegazti hauek. Ezkontza-eraztunak eramateko erabili daitezke, jende arte batean norbaitek karta bat atera eta hori ekarri arazi diezaiokezu...

**Zer eman dizu zuri zaletasun honek?**

Inoiz izango ditudan lagun onenak izatea. Askatasuna ematen dizu honek. Basa animaliak dira hauek, eta itzela da ikustea deitu eta 200 kilometro orduko abiaduran etortzen zaizkizula eskura. Ez da menpekotasuneko harreman bat. Txakurrak obligazioz jarraituko dizu, eta kasurik egiten ez badizu, errieta egin eta lortuko duzu zeure ondora ekartzea. Hauekin ez. Hauek ezin dituzu behartu, eta ezta mimatu ere, ez zaizkielako mimoak gus-tatzen.



# Elgoibar erotikoa

## Umorea, erotismoa, gastronomia eta ardoa izango dira asteburuko osagaiak

**B**igarren urtez antolatu du Elgoibar Erotikoa Carlos Lahozek, Viento Sur gastrotekako nagusiak. Atzo hasi, eta domekara bitartean erotismoak hartuko ditu, beraz, Elgoibarko taberna eta jatetxeak, eta pintxo-poteaz gain, beste hainbat ekitaldi izango dira aukeran. Aurten 27 tabernak hartuko dute parte. Bakoitzak bere pintxo erotikoa prestatuko du, eta krianza ardo beltza, berdejo zuria edota garagardoa izango ditu aukeran, 2,5 euroren truke. Umorea, erotismoa, gastronomia eta ardoa izango dira astebururako osagaiak.

lazko ekitaldiak izan zuen arrakasta ikusita, Carlos Lahozek beriz antolatu du Elgoibar Erotikoa, krisiaren eragina arintzeko asmoz. "Harrituta" geratu zen egitasmoaren lehenengo edizioak izan zuen harrerarekin, izan ere, Elgoibarko jendeaz gain, kanpotik ere jende asko etorri zen-eta. Cojón de gato ardoarekin jolastuz, gazte jendea ardoaren mundura hurbiltzeko asmoz antolatu zuen iaz pintxo pote erotikoa, eta aurten, pausobat haratago joan da: piropo lehiaketa, streapteasak, tupper-sex saioak, kontzertuak, eta dastatze erromantikoak izango dira, besteak beste, asteburuan. Tabernetatik kanpo ere, kale giroa sortzeko ahalegina egin du aurten, eta karpa jarriko dute Maalako parkean. Musika eta kontzertuez gain, txakurtxo beroak dastatzeko aukera eskainiko dute.



Horrez gain, 27 tabernatan kutxak jarri dituzte piropoak uzteko. Euskaraz zein gaztelaniaz idatzi daitezke piropoak, eta Zuhaitz Gurrutxagak eta Jasone Osorok aukeratuko dituzte irabazleak. Piropo onenaren egileak bi lagunentzako afaria irabaziko du.

Aurtengo berrikuntzen artean, bestalde, streaptease, tupper-sex eta igurtzi tailerrak antolatu dituzte. Viento Sur gastrotekan egingo dute igurtzi tailerra bihar arratsaldean. Parte hartzeko aurrez eman beharko da izena. Tupper sex saioak irekiak izango dira, eta momentuan bertan agertzearekin nahikoa izango da. Gabin izango da gaur gauean, afari erromantikoaren aurretik. Txarridunan ere menu berezia prestatu dute astebururako, eta han bertan egingo dute tupper-sex

saioa, eta postrea girotzeko streapteasa egongo da. Zapatu gauean, bestalde, Tantaka, Salento eta Gabaz tabernetan egingo dituzte streapteasak. Zalantzarik gabe, asteburu beroa izango da.

Elgoibarko asteburuetako giroa asko jaitsi dela uste du Lahozek, eta gauza berriak asmatu behar direla dio jendea tabernetara erakartzeko: "Garai batean taberna bat zabaltzen zuenak ziurtatuta zeukan arrakasta, baina gaur egun, kompetentzia handia dago eta ekitaldi bereziak antolatu behar dira". Era berean, tabernarien arteko batasuna eta elkarlana falta direla uste du, eta krisiari aurre egiteko denek norabide berean lan egin beharko luketela gaineratu du.

### EGITARAUA

#### AZAROAK 8, BARIXAKUA

- 19:00etatik aurrera, pintxo-potea
- 21:30 Tupper sex saioa, Gabi jatetxean.
- 23:00 Kontzertua, Maalan

#### AZAROAK 9, ZAPATUA

- 18:00 Igurtzi tailerra, Viento Surren. Aurrez izena eman behar da.
- 23:00 Kontzertua Maalan: Codigo Habana. Karibeko musika sentsuala. Gabin eta Txarridunan menu erotikoa. Txarridunako afariak tupper-sex

eta streapteasea ere izango ditu.

- 00:00 Streptease, Tantakan (gizonezkoa)
- 00:30 Streaptease, Salenton (emakumea)
- 02:00 inguruan, streaptease mistoa, Gabazen

## Perretxiko erakusketa jarriko du Karakate mikologia elkarteak domekan

Astelehen eta martitzenean eskola umeak hartuko dituzte



Urteroko usadioari jarraituz, perretxiko erakusketa antolatu du Karakate mikologia elkarteak. Domekan zabalduko dute erakusketa, Kultur Etxean (11:00etatik 14:00etara goizez, eta 17:00etatik 20:00etara arratsaldez). Inguruko mendietan batutako perretxiko espezieak jarriko dituzte erakusgai, eta haien gaineko azalpenak emango dituzte. Astelehen eta martitzenean, berriz, Elgoibarko eskola-umeentzako zabalduko dute erakusketa. Herri Eskolako eta Elgoibar Ikastolako ikasleei egin diete gonbita, eta lerro hauek idazteko unean, Lehen Hezkuntzako hamabi talde zeuden izena emanda. Hogei bat minutuko tartean, bildutako perretxikoen inguruko azalpenak emango dizkiete Karakate mikologia elkarteko lagunek.

## Bertso merienda antolatu du gaurko Beinkek, Miren Artetxe eta Ander Solozabalekin



Bertso-eskola zer den azaltzeko eta bertsoekin zein ondo pasa daitekeen erakusteko bertso-merienda antolatu dute Beinke bertso-eskolako lagunek gaurko. Miren Artetxe eta Ander Solozabal bertsolariak ekarriko dituzte bertsoan egitera, eta herriko ume eta gaztetxo guztiak gonbidatu dituzte meriendara. 17:00etan hasiko da saioa Beinke bertso-eskolaren gelan (Elgoibarko Izarrak Plaza Txikian daukan lokalean, AEK euskaltegiaren gainean).

## Azaroaren 16an ospatuko dute Elgoibarren Magosto Jaia

Udazkenaren etorrera ospatzeko, Magosto jaia ospatuko dute Elgoibarren azaroaren 16an. Galiziako kultur etxeak antolatzen du jai hau, eta urtero legez, gaztainez gain, Galiziako produktuak erosteko eta dastatzeko aukera izango da egun horretan 8:30etik 13:00ak bitartean, Nafarroa Plazan.

## Zuberoako Eperra ikastolaren aldeko otarrak, Elgoibarko Izarran

Seaskak, Iparraldeko ikastolen federazioak, urteroko kanpaina hasi du. Aurten, Zuberoako Eperra ikastolaren aldeko otarrak jarri ditu salgai, Eguberriei begira. Elgoibarren, Elgoibarko Izarra kultur elkartean eskura daitezke otarrak, 40 euroan. Kilo ardi-gazta, ahate gibelarekin egindako 200 gramoko pate zatia, bizkotxo poltsa eta 500 gramoko ezti potea dakartzat otarrak. Interesatuak azaroaren 28rako egin behar duzue eskaera Elgoibarko Izarrak Ubitarten daukan bulegoan, email bidez ([elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com)) edota telefonoz (943 741 626).

## 'Bikokote' haurrentzako antzerkia, azaroaren 17an

Lanku produkzioak-ek *Bikokote* antzezlanaren taularatuko du azaroaren 17an, Elgoibarko Herri Antzokian (16:30). Haurrentzako antzerkia da *Bikokote*. 1822ko istorio bat kontatzen du. Piruli eta Txupi izeneko bi pertsonaia uharte bakarti batera iritsiko dira, baleak arrantzatzen ari direla. Uhartean bizi dira, baina gaur egungo Euskal Herriaren berri ere badute, uhartera urak ekartzen dien objektuei esker. Hala, barruko irrikak bultzatuta, Euskal Herrira bueltatzea erabakitzen dute. Sarreak egunean bertan erosi beharko dira. Haurrek 3,5 euro ordaindu beharko dituzte, eta helduek 5 euro.



# Ingeniaritza eta industria-kudeaketaren inguruko laugarren liburua argitaratu du Ander Errasti elgoibartarrak

Industria-entrepresetako zuzendariari zuzendutako liburua da

**G**lobal Production Networks: Operations design and management liburua argitaratu du Ander Errasti elgoibartarrak, ingeniari eta industria-kudeaketaren inguruan idatzi duen laugarrena [Bigarren edizioa salgai dago dagoeneko]. Fagorren, Arrasateko Eskola Politeknikoan eta Ulma Handlingen lan egindakoa da Errasti, eta gaur egun, Natra taldeko zuzendaritza kidea eta Nafarroako Unibertsitateko Tecnun Ingeniaritza Eskolako irakaslea da.

Global Production Networks: Operations design and management liburuaren bigarren edizio hau Estatu Batuetako Taylor&Francis argitaletxearekin argitaratu du. Argitaletxe horrekin argitaratze hutsa bera bada aintzat hartzekoa. Izan ere, liburuak prozesu "zorrotza" gainditu behar du argitarara emateko: autore eta egilekideek erreferente izan behar dute mundu akademikoan, eta memoria teknikoan aurrez publikatu diren liburuetatik zerk bereizten duen jaso behar du autoreak, eta zientzialari batzorde baten onospena jaso behar du ondoren ezinbestez. Liburu honekin aitzindari izatea lortu du Errastik, lehen aldia delako "espainiar jatorridun" batek arlo horretan

ingelesez publikatzen duena. Taylor&Francis etxearekin argitaratzea handia dela aitortu du Errastik berak, "hamabost urtean industrian eta hezkuntzan egindakoari nazioarteak egindako aitortza" delako azken batean. "Euskadin gauzak ondo egiten direla erakutsi dugu, ezagutza garatzen dugula, eta gure ezagutza hori beste herrialde batzuetara esportatu dezakegula", adierazi du.

Aurreko hiru liburuen osagarri da laugarren hau, nolabait esatearren. Hobekuntza batzuk egin eta hemen bertako hainbat enpresaren eta kanpoko beste hainbat kasuekin osatu du, tartean, Irizar, Ikor, Indar Ingeteam, Ternua, Rolls Royce eta Ikearen kasuekin. Industria-entrepresetako zuzendariari zuzendutako liburua da berez, eta Errastiren esanetan, aspaldi sumatutako behar bati erantzutera dator: "2006an entrepresetako ordezkariatzat egindako aholkularitza lanetan antzeman nuen ez zegoela gai hau landuta, eta entrepresetako zuzendariak ez zutela inolako gida garbirik erronka berriei heltzeko. Ez zutela gidarik, besteak beste, nazioarteratzeari, industria-erosketa globalei edota merkatu berrien banaketa estrategiei heltzeko".



Global Production Networks: Operations design and management liburuaren bigarren edizioa ingelesez hitz egiten duten herrietan dago salgai, baina Interneteko liburu-dendei esker, Alemanian, Japonian, Suedian, Norvegian, Belgikan, Frantzia, Italian eta Espainian ere harrera ona ari da izaten.

## Euskaraz irakurtzera bultzatzeko tailerra emango du Danele Sarriugartek

Elgoibarko Gotzon Garate Udal liburutegiak euskaraz irakurtzeko zaletasuna bultzatu nahi du, eta tailer bat antolatu du horretarako. Danele Sarriugarte idazle elgoibartarrak eskainiko du tailerra. "Euskaldunek euskaraz irakurtzeari dioten beldurra" galtzea da helburua, eta horretarako, hilean behin batuko dira: astelehenera, 18:00etan. Taldea osatzeko gaur zortzi, azaroaren 15ean, elkartuko dira, 18:00etan, liburutegian.



## 'Katuska' zartzueta gaur, Herriko Antzokian

Masa Coral del Ensanche taldeak Pablo Sorozabal musikagile donostiarraren (1897-1988) Katuska zartzueta eskainiko du gaur Elgoibarko Herriko Antzokian. Luis A. Gamarra zuzendariaren agindutara jardungo dute Marta Ubietak, Jesus Lumberrasek, Alberto Nuñezek eta Izaskun Kintanak.

Saioa 20:30ean hasiko da eta gaur bertan ere izango da sarrearak erosteko aukera: Herriko Antzokiko lehiatilan nahiz [www.kutxa.es](http://www.kutxa.es) Interneteko atariaren bidez.

## Imanol Garaizabal eta Aaron Garmendiak irabazi dute raid probetako Euskal Liga

Joan zen zapatuan jokatu zuten azken proba Trapagaranen, eta irabazi egin zuten


**C**olumbia Raid Series ligako azken proba jokatu zuten zapatuan Trapagarango bailaran, Bizkaian, eta Imanol Garaizabal elgoibartarrak eta Aaron Garmendia laudiotarrak osatutako bikoteak irabazi zuen proba. 128 bikotek parte hartu zuten guztira gizonezkoen kategorian. Garaipen horri esker, orientazio raid probetako Euskal Liga irabazi dute. Apirilean hasi zen Euskal Liga Arabar Errioxan jokatu zuten raid probarekin, eta, harrezkero, Artean, Lizarran, Oñatin, Zubirin, Laudion, Arabako Mendietan eta Trapagaranen jokatu dituzte probak. Horietan lortutako emaitzak batu ostean, Imanol Ga-

raizabal eta Aaron Garmendia ageri dira sailkapen nagusiko lehen postuan. Denboraldiari amaiera bikaina eman diotela esan du Garaizabalek, eta datorren urtean erronka berriak probatzeko gogoz dagoe-la gaineratu du. Joan zen astean BARREN astekariari eskainitako elkarrizketan esandakoaren arabera, nazioarteko raid bat egitea gustatuko litzaioke. Korsikako raida dauka begiz jota elgoibartarrak.

Elgoibartar gehiagok ere parte hartu du Euskal Ligaren bigarren edizioan. Jabi Guallarrek eta Iñigo Araujok osatutako bikoteak sailkapen nagusiko zazpigarren postuan amaitu du denboraldia.



## Arkaitz Astiazaranek emango du Morkaikoren udazkeneko emanaldien bigarren saioa



Ander Izagirreren saioarekin hasi du Morkaikok udazkeneko mendi emanaldien zikloa, eta guztira lau saio eskainiko dituzte, azaroko eguazten eta eguene-tan. Datorren astean izango da bigarrena: Arkaitz Astiazaran abenturazaleak *Euskal Herriko altxorretan barrena* hitzaldia eskainiko du. Astiazaranek 2013ko udaberrian Euskal Herrian zehar bizikletaz egindako 4400 kilometroko bidaia kontatuko du. 37 etapatan, 800 herri eta 175 mendate igaro zituen. Euskal musikaz lagundurik, gure herrialdeko paisaia, tradizio, mendialde, animalia, itsasalde, herri eta natur inguruneak erakutsiko ditu saioan zehar.

Azaroaren 20an, berriz, Andoni Ormazabalek mendian galdutako anaia Xabiren bizitza kontatuko du, haren argazki eta gunerokoan oinarrituta.

Azken saioa hilaren 28an eskainiko du David Villegas mendizaleak. Mendizaletasuna pizten dioten arrazoiak azalduko ditu.

Saio guztiak 21:30ean izango dira, Musika Eskolako auditorioan.

### Karakateko igoeraren 20. edizioa, azaroaren 16an

Morkaikok antolatuta, azaroaren 16an jokatuko dute Karakateko Igoera, eta aurtengoa 20. edizioa izango da. Korrikalariak 11:00etan irtengo dira Kalegoen plazako frontoitik, eta Karakatera arteko bidea egin beharko dute. Ibilbidea librea da, ez da markatuta egongo eta korrikalari bakoitzak aukeratu ahaliko du egokien datorkion bidea.

Interesatuak Morkaikok Errosario kalean duen egoitzan eman dezakete izena aurrez, baina egunean bertan ere izena emateko aukera egongo da, 10:00etatik aurrera.

Antolatzaileek bost sari banatuko dituzte: Txapela eta Mausitxako gazta emango dizkiote irabazleari, gizonezko zein emakumezkoetan. Horrez gain, lehen elgoibartarrari Mausitxako gazta emango diote, gizonezko zein emakumezkoetan, eta aurpegi onenarekin iristen den korrikalariak ere gazta jasoko du.

Proba amaitzen denean dutxatzeko aukera izango dute partaideek, eta eguerdian babajana egingo dute.

# Munduko marka ondu du Bihurri aizkolariak esku bakarrarekin

Hiru metro eta 40 zentimetroko enborra moztu du



**B**este erronka bat gainditu berri du Ernesto Ezpeleta Bihurri aizkolariak, eta bere marka propioa ondu du. Esku bakarrarekin hiru metro eta 40 zentimetroko diametroko enborra moztu zuen zapatuan Bilboko La Casilla aretoan, bi ordu, bederatzita minutu eta 35 segundoko lanaren ostean. Azkenaurreko marka 2012ko martxoan ezarri zuen Bihurrik: orduan, hiru metro eta hamar zentimetroko gerri bueltako pago enborra ebaki zuen esku bakarrarekin, 3.850 aizkorakada eta ia bi orduko lanaren ostean. Zapatuan ezarritako markarekin, bosgarrengez ondu du munduko marka Mendaroko aizkolariak. Gaixotasun arraroak dituzten umeen alde antolatutako jaialdiaren barruan ezarri zuen Bihurrik munduko marka berria, eta ikuskizunean batutako dirua gaixotasun horiek ikertzeko erabiliko dute.

Azken aizkorakadak eta enborra bita zatitu zen ueña ikusgai duzue [www.elgoibarren.net](http://www.elgoibarren.net) atarian.

## Derbia jokatu dute bihar Alcorta Forging Group eta Somos Eibar eskubaloit taldeek

Denboraldiko partidarik zirrargarrieneraiko bat izateko osagai guztiak ditu Alcorta Forging Group eta Somos Eibar Eskubaloia taldeek bihar, Olaizaga kiroldegian, jokatu duten derbyak (19:30). Denboraldi aparta egiten dihardute eibartarrek eta zazpi jardunaldien ostean, partidarik galdu gabe eta Espainiako lehen Mailako lidergoan ailegatuko dira Elgoibarrera. Alcorta saillkapeneko 8. postuan dago, hiru partida irabazi, bat berdindu eta hiru galdu eta gero. Iaz ere antzera zeuden sasoi berean, baina kontuan izan behar da aldaketa dezente izan dituela taldeak iaztik. Hiru jokalarik, Sagastak, Julenek eta Lapeyrak, taldea laga dute, eta aurreko denboraldietan taldeko goleatzaila nagusia izan den Andoni Armendia, berriz, min hartuta dago. Gainera, entrenatzailez ere aldatu du Alcortak, eta Gojko Vucinicek hartu du Juanma Lopezen lekua. Baldintza horietan egin duten denboraldi hasierarekin gusura daude taldeko arduradunak.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Haundi **2** – Sodupe **0** (3. maila)  
Elgoibar **3** – Urola **3** (Ereg.)  
Elgoibar **0** – Arratia **3** (Neskak)  
Mondragon **3** – Elgoibar **2** (Jub.)  
Elgoibar **1** – Urola **1** (Kad. A)  
Elgoibar **5** – Soraluze **1** (Kad. B)  
Zestoa **1** – Elgoibar **5** (Inf.)  
Bergara **3** – Elgoibar **2** (Inf. Txiki)  
Elgoibar **2** – Zarautz **8** (Aleb.)

### ARETO FUTBOLA

King Kong Elg. **4** – Anoeta **4** (Jub.)  
Inter Movistar **0** – Concepto Egile Elg. **3** (2B)

### SASKIBALOIA

Viento Sur Elg. **54** – Zarautz **67**

### ESKUBALOIA

Corrales **33** – Alkorta Elg. **29** (Sen. mut.)  
Lauko Elg. **25** – Camargo **32** (Sen. nesk.)  
Gabaz Elg. **23** – Leizaran **21** (Sen. mut.)  
Beristain Elg. **31** – Bergara **19** (Jub. mut.)  
Pneumax Elg. **33** – Ordizi **27** (Kad. mut.)  
Txarriduna Elg. **29** – Saieko **41** (Kad. mut.)

### PILOTA

Lagunak **5** – Aurrera Saiaz **22** (1 maila nag.)  
Lagunak **16** – Zestoa **22** (2. maila jub.)  
Lagunak **7** – Zumaia **22** (2. maila kad.)

### PALA

Lagunak **25** – Usurbil **14** (2. maila nag.)  
Lagunak **25** – Azkoiti **17** (2. maila nag.)

## AGENDA

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 9  
18:00 Haundi – Portugalete (Neskak f-8)  
12:00 Elgoibar – Lehengokoak (Jub.)  
10:00 Elgoibar – Urki (Inf. Txiki)  
Domeka, 10  
12:30 Elgoibar – Urki (Kad. B)

### ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Domeka, 10  
12:30 Concepto Egile Elg. – Xota B (2B)

### ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 9  
11:15 Bankoa Elg. – Bergara K.E. (Inf. mut.)  
12:30 Deca Elg. – Algorri (Inf. mut.)  
15:45 Astigarra Elg. – Bera Bera (Jub. nesk.)  
19:30 Alkorta Elg. – Somos Eibar (Sen. mut.)  
Domeka, 10  
10:30 Cometel Elg. – Iklus Elg. (Inf. nesk.)

### PILOTA

Barixakua, 8  
22:00 Lagunak – Arrasate (3. maila nag.)

**LANA**

**ESKAERA**

- Lizentziatua eskaintzen da klase partikularrak emateko. Matematika, fisika, marrazketa... Euskaraz zein gaztelaniaz, banaka edo taldeka. DBH eta Baxilergo mailetan. ☎ **699 495 278**
- Emakumea eskaintzen da, geriatría ikasketekin. Adinekoak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest. ☎ **943 741 080**
- Gizonezkoa lan bila. Esperientzia handia igeltsero eta lorezain lanetan. ☎ **628 818 558**
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko edo zerbitzari lanetarako. Interna ere bai. ☎ **633 781 038**
- Frantsesa, latina, euskera eta gaztelarako klaseak ematen ditut. ☎ **617 114 185**
- Emakumea lan bila. Nagusiak edo umeak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile lanak egiteko prest. ☎ **606 354 982**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko, zein garbiketara lanak egiteko. ☎ **697 702 158**
- Gizonezkoa lanerako prest: Adinekoak zaintzeko, sukalde laguntzaile lanetarako... ☎ **690 861 846**

- Neska eskaintzen da garbiketarako egin edo adinekoak zaintzeko. ☎ **616 457 254**

**ETXEBIZITZAK**

- Babes Ofizialeko Etxebizitza salgai Elgoibarren. Hiru logela, berogailua, trastelekua. ☎ **637 046 720 (Ander)**
- Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **626 215 567**
- Emakumea pisu bila dabil. ☎ **630 410 294**
- Pisu alokatzeko da. Bi logela, egongela handia, sukalde, igogailua, terraza eta ganbara. ☎ **646 581 666**
- Etxea alokagai Deban. Bi logela altzariekin, berogailu zentrala logela guztietan. Hilabeteka alokatu daiteke. ☎ **669 339 529 (16:00etatik aurrera)**

**LOKALAK**

- Lokala alokagai, San Roken. Leihate handiak, aparkatzeko leku egokia. Gazte nahiz elkarteenentzako. ☎ **6943 744 467 / 649 446 716**

- Gazteentzako lokala alokagai, Urazandin. Baimen guztiak Udal ordenantzara egokituta, alama, bainugelak, dutxa. Bi gune ditu lokalak. ☎ **610 893 332 / 943 531 407**

**BESTELAKOAK**

- 11 hilabeteko hispaniar arrazako txakurra galdu dut. San Pedron ikusi dute azkeneko. Norbaitek ikusi badu, deitu dezala, mesedez. ☎ **627 820 513 (Juan)**

**KINTOAK ETA OSPAKIZUNAK**

- 1974an jaiotako ikastolan ikasitakoek 8. mailako afaria egingo dute azaroaren 30ean, Sigma jatetxean, 22:00etan. Izena emateko azken eguna, azaroaren 25a. 35 euro sartu behar dira Laboral Kutxako kontu korronte honetan: **3035 0007 23 0071033857**. ☎ **678 674 142 (Anjel) / 677 260 878 (Iñigo)**

**Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.**

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **18€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€**. Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.

- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **12€** (alokairua) - **15€** (salmenta). Autoak saltzea: **12€**. Bestelakoak: **6€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**  
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



**- Duela urtebete portala berritu genuen gurean, obra handi bat eginda. Orain, etxepeko lokal baten jabeak presidenteari jakinarazi dio obra egin behar duela lokalean, bi etxebizitza egin nahi dituelako lokal horretan, eta bietako baterako sarrera portal barrutik egin nahi duelako. Udalaren baimen guztiak dituela jakinarazi digu, baina ez daukagu garbi obra hori egin dezakeen edo ez.**

Galdera honi erantzuteko, ezinbestekoa zaigu hainbat datu eta informazio izatea. Halako obra bat egiteko, batetik, Udalak hainbat baimen eman behar ditu, horretarako beharrezko den dokumentu guztiak bildu ostean. Bestetik, obra berriaren deklarazio-eskritura eta etxe-jabeen komunitateko estatutuak aztertu behar dira, guztienak diren espazio edo elementuetan obrak egiteko, esaterako ate berri bat sortu, gasa sartu... Halakorik ezean, etxejabe guztiek onartu beharko dute obra hori egitea. Azkenik, ikusi beharko genuke eskriturretan aukera ematen den lokal horri beste erabilera bat emateko, bestela, kontrako kasuan, bizilagun guztien onospena beharko delako.


**Gomendioa: Etxebizitza bihurtuko duten lokal horri dagokion kuota berriro aztertzea eskatu daiteke.**

**ROSA Mª PINTADO:** Etxaldean Administrazioako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak, **Ihintza**, gaur 4 urte egin dituzulako. Aiton-amonen partez, muxu handi bat.



• Zorionak, **amatxol** Ondo pasa zure egunean. Duna, Manex eta Robertoren partez.



• Zorionak, **Unax!** Ondo pasa zure urtebetetze egunean. Muxu handi bat familiako guztien partez.



• Zorionak, **Ibai eta Naroa**, 9 eta 5 urte egin dituzuelako. Muxu handi bat gurasoen eta familiako-en partez.



• Zorionak, **Elena**, atzo 6 urte egin zenituelako. Zorionak zuri ere, **amatxo**, biharko partez. Muxu asko etxekoan, eta bereziki, Mariaren partez.



• Zorionak, **Monika!** Nuria eta Leireren partez.



• Zorionak, **Olhane!** 5 urte potolo bete dituzu dagoeneko!!!! Patxo asko familiako guztion partetik.



## Zoriondu ezazu **BARRENEN!**


### PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra **4€** - Argazki bikoitza **6€** - Hirukoitza **8€** - Hiru lagunetik gorako taldeak **12€**

### ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK


Erretratu bakarreko agurra **3€** - Argazki bikoitza **5€** - Hirukoitza **7€** - Hiru lagunetik gorako taldeak **10€**

Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira **BARRENEN**ko bulegora, **12:00ak** baino lehen, edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali.



Zer gustatuko litzaizuke egitea Eguberrietako oporretan?  
Gaur programazioa osatuko dugu guztion artean,  
**18:00etatik aurrera.**

Gaur, azaroak 8,  
**Beldur Barik-eko bideoekin**  
lagunduko digute.  
Ekarri zurea eta azken ukitua  
emango diogu.



## 8 barixakua

### Musika

20:30 Zartzuela

Masa Coral del Ensanche taldeak *Katiuska* zartzuela taularatuko du, Herriko Antzokian.

## 10 domeka

### Erakusketa

10:00 Perretxiko erakusketa

Karakate mikologia elkarteak antolatuta, Kultur Etxeko sotoan. Arratsaldez ere zabalik egongo da, 16:00etatik aurrera.

## 12 martitzena

### Aisialdia

17:00 Ipuin kontalaria

Anie Funny-k eskainiko du saioa, ingelesez. Emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko egunaren harira antolatu dute ekitaldia. Liburutegian.

## 13 eguztena

### Mendizaletasuna

21:30 Udazkeneko emanaldiak

Morkaikok antolatuta, Musika Eskolako auditorioan.

## 14 eguztena

### Bilera

19:00 Garraio publikoa hobetzeko bilera Foru Aldundiak antolatuta, Kultur Etxean.

### Bilera

19:00 Ahaldu nagusiarekin solasean Martin Garitano Foru Aldundiko ahaldu nagusiak Elgoibar bisitatuko du, eta solasaldia egingo dute, Musika Eskolako auditorioan.

## 15 barixakua

### Bakarrizketa

20:30 JJ. Vaquero

Telebistako bakarrizketalari ezagunaren emanaldia, Herriko Antzokian.

### Zinema

21:30 Zine-forum

Haizea emakume taldeak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du saioa. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## ZINEA

### «El último concierto»

9, zapatua: 19:00/22:15

10, domeka: 19:00

11, astelehena: 21:30



### «El último concierto» Zuzendaria:

Yaron Zilberman. AEB, 2012.

Iraupena: 105 min. Drama. Aktoreak:

Philip Seymour Hoffman, Christopher Walken, Catherine Keener. 25 urtez

puntako musika taldea izan den laukoteak bere etorkizuna kolokan

jarriko duen golpe gogorra jasoko du.

Bizitzak, baina, beti eskaintzen du bigarren aukera bat, eta taldearen 25.

urteurrena ospatzeko, azken kontzertua emateko bidea aurkituko

dute.

### «Epic: un mundo secreto»

10, domeka: 16:30

### «Tabú»

Ongarri zinekluba

14, eguztena: 21:30



### «Tabú» Zuzendaria: Miguel Gomes.

Portugal, Alemania, Brasil eta Frantzia,

2012. 110 min. Drama, amodioa.

Aktoreak: Teresa Madruga, Laura Soveral, Ana Moreira, Carlotto Cotta

Portugaldik Afrika Kolonliarea bidaia eskaintzen du Tabú filmak. Adineko

emakume bat hiltzean, haren neska-meak eta bizilagunak Afrikan gertatuta-

ko hainbat istorio deskubrituko dituzte.

## BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

## GUARDIAK

### Egunez

9:00 - 22:00

### Gauetz

22:00 - 9:00

8	Ibañez	Etxeberria
9	Garitaonandia	Garitaonandia
10	Garitaonandia	Garitaonandia
11	Etxeberria	Etxeberria
12	Fernandez	Yudego
13	Yudego	Yudego
14	Zabaleta	Barrenetxea

Fernandez Herriko enparantza 4,

Garagartza (Mendaro)

Tel: 943 756 142

Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) -

Tel: 943 751 638

Zabaleta Kalebarren, 9 (Soraluze)

Tel: 943 751 384



I. URTEURRENA

## JUAN JOSE ONDARZA GURRUCHAGA

2012ko azaroaren 7an hil zen.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, azaroak 9, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



ESKERTZA

## ESTEBAN GONZALEZ GARCIA

2013ko urriaren 27an hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

## PETRONIO DOMINGUEZ COLLIGA

2013ko urriaren 27an hil zen.

*"Zaila izango da onartzea ez zaitugula berriz ikusiko, baina bizi garen artean, beti izango zaitugu gogoan"*



ESKERTZA

## ARANTZA PALACIOS URDIAIN


2013ko urriaren 31n hil zen, 58 urte zituela.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## ARANTZA PALACIOS URDIAIN

*Zu izan zara alaitasunez  
ongi jantzitako lora  
atsegin handiz pasatu dugu  
zure ondoan denbora  
nahiz hutsunea sentitzen dugun  
zu joan eta gerora  
zure irrifar distiratsua  
gurekin geldituko da.*



Errosario kaleko Jai Batzordea

# VITALDENT

Egin bakeak dentistarekin

Orain badakit  
inoiz ez dela berandu  
irribarre polit bat  
edukitzeko

Ortodontzian  
espezialistak

RPS 49/12



**EIBAR**  
San Juan kalea, 7  
**943 82 18 85**